

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroa arautzen duen zerga ordenantzari

Berantevillako udalbatzak, 2021eko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen ordenantzari, eta, hala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da espedientea hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera izan dadin hura aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Halaber, interesdunen eskura daude udal honen web orrian: www.berantevilla.es.

Epe hori igarota alegaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko onartuta geratuko da.

Berantevilla, 2021eko urriaren 8a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY